



SALDIAS

Juana Mariezkurrena, Saldiasko Maixenekoa

Ni naiz Juana Mariezkurrena, Saldisko Maixenekoa, ingurun badao Muxarrrenea, hau Yoanteneea, hor Argiñeneea, hor Lopereneea, Matxineea, Sunbillenea, Martikonea, hoiek... Baserrik badaude, baño hemen auzoa ez, hau dena bat da, bai...

Bai, bai, nekazari bezala, klaro, badire fabriken lana eitten duten batzu, baña gutxi, oso gutxi, gehiena nekazaritzatik bizi da, hemengo yendea.

– Bizimodua asko aldatu al da hemen, herri honetan?

– Bai, oh! Asko aldatu da, itxe aldaketan ez eh!, baño bestela, bestela dena kanbiatu da, hoixe, yende gutxio, klaro, gu berak bedetzi senide bagin, ta goain nork ttu bedetzi, inork ere ez, bat, bi, gehiena ttunak hiru, ta kanbiatu itten da, klaro, familiko izakera, pues, ezta, ezta lengoa, ezta pentsatu ere. Bai, gogorrangoak ziren biño ezkiñun besterik ikasi ta, urdun pues, hure zen guretzat hobena, beti alai bizitzen giñen, beti lana e pixkeat itten giñun da, erdiyan (?) da...

Gizonak lantegitan itten zuten lana, gure aitta ikatz eitten aitzen tzen, ta anaiek ere berakin, gazte aski hasi ziren yoaten, ta haik ekartzen tzuten puxka horrekin, ta etxin beste zerbait itten giñun ta, hala...

Kanpon gehio, bueno etxian ere bai, ure re etxea kanpotik karri behar giñun, eta arropak ere, labaderora yoan behar izaten giñun garbitzera, etzen goai bezala, ta beti etxin, etxin aitzen giñen bai, ta alorren ere hantxe, makoan, altzurraan, ta denetan.

Ez, ez, etzen beajerik, beaje gutxi itten tzen, da autobusa hartzeko bajatu behar giñun hara bera, ta hoixe.

– Eta gainera orduan ez zen noski Orokieta alderako bideberririk.

– Hau berandu eiña da eh!, bai, zenbat urte dire ba, oso gutxi, ez, hemen ezkiñun batere kamiorik, ezkiñun, oai dela hogeita... eztait zenbat urte izanen dien, hogeitabos seien bat hor izanen dirie ez?, (---) lenbizikoa eiñ tziutela, ta, bitarte beti bera yoten giñen, hantxe bordetara (---), handik hartutzen giñun

autobusa, batzutan ailegatzen, da, eskapa igual, buelta gora.

– Eta orduan jendia, ez dakit, hobeto ez dut esango baina zoriontsuago edo ta bizi al zen orain baino?

– Bai, ni bai eh!, ni bai, askoz hobeki oaiñ baño, bueno oaiñ ere eznaiteke kejatu, dutenaatik «bien», ta ongi aski baño, urdun beste, «es que» beste era bat zen, beste era bat, etzen telebistaik, etzen baño neretzat oaiñ sobra dago eh!, etzait batere gustatzen, zerbait, baño oso gutxi.

– Eta nola ziren orduko ume koxkorren arteko eta jolasak, jokuak eta, holakorik e...

– Bai, biño beti izaten giñun, pues, altxaketan, edo yostatze soka, edo saltoka edo, horik izaten ziren, giaun yostatze gauzak.

– Eta altxaketan aritzeko ez al zen, zera, hala kanturik edo ta...

– Bai, baziren, baziren bai, ezkutatzen zirenek etzuten gauza handirik esaten, bale!, bakarra edo bai!, edo ez!, baño altxatzeko bat esaten zen, han betetzen zeonak esaten tzun «kuku-kuku landa, erbi baratzen da, kuku baza-tez, kuk», ta urdun kontestatu behar tzuten altxatuta zaudenak. Hori bat, bestea...

Bai, guk hura esaten giñun, hemen, billatzen zunak esaten zun «safo!», da bestek esaten tzuten, libratu zirela ta, ta urdun beste haik gordeta zaudenak atera itten tziren, ez?, libratu zittula...

– Halako jolasik ezta ikusten oraingo neska-mutikoskorren artean...

– Orain re ibiltzen dirie eh!, baño eztut aitzen, gauza hoik nik eztut aitzen, batere... memoria, eztut oso txarra, baño urte asko dire ta atzendu re in tzazkit ya... zerbait ere badakit klaro, zerbait ere esateko, bi, bi beinpein bai.

– Haur kantak lirarteke edo gehiago ba, amak txikiei egindakoak...

– Bai, hoi e erakusteko doo, hola egindakoak, nik pentsatzen dut eh?, kantak bezala eztirie eh?... bai, gure gazte denboran etzen izaten gauza oinik eta (---) zerbaitan denbora pasatu behar, ta urdun pues, gauz hoik eakusten pasatzen tzuten denbora, ta guk ikasi... hoi.

Bai eskola bazen, baño ez oin bezala, oin biño eskasago zen hure... bueno, hasiko gara esaten, edo zer?

Bueno, bat esanen dezut ordun, lenbiziko hau, esaten tzutena: –kukurru-kul!, –zer diazu?, –buruan min, –nork egin?, –Xaxarkok, –Xaxarko nun da?, –itturritxon, –zertan?, –txotxak biltzen, –txotxak zertako?, –sua itteko, –sua zertako?, –amona xarra berotzeko, –amona xarra zertako?, –ollos bazkatze-

ko, –oltoa zertako?, –arraultza erruteko, –arraultza zertako?, –apezari emateko, –apeza zertako?, –meza emateko, –meza zertako?, –gu ta mundu guzia salbatzeko.

Urdun izanen zen, pues, Xaxarko, nik pentsatzen dot eh?, gizon xarren bateri esaten izanen zitela, nik hemen eztiot iñori re aittu eh!, biño Labainen da, bada. Bai, hor don Tomasek battu hartuk, ya, hiru modutara dago, bai, pixkoat diferentexoo hola, nik esan duten biño... klaro beti denetan bada eh!, nik hori don Tomasi aittu diot bere koñatak Labainen ere esaten dula, esaten ttula gauzak asko hola, batzuk erdaraz, denetan nastuk, hola...

Gu yende hartakin ta hola ezkiñen aitzen askorik hok esaten, etxiin gehiena, etxiin izaten giñuen, ikasi eta gero giaun arteen, ni asko aldiz aritzen naiz, hola, errepasatzen (?), bestela...

– Eta beste bat ere, ba omen duzu gogoan.

– Bueno, pues hure re geo, luzea da eh!, biño esanen dizut, ea ateatzen zaiten ongi, lengunen esaten hasi nitzen hure re,

«Ama!, ekartzu papa,
–«haurra!», apezak du giltza,
–joan nitzen apezangana
nahi nuela giltza,
apezak esan ziran
nahi zuela arraultza,
yoan nitzen olloarengana,
nahi nuela arraultza,
olloak esan ziran
nahi zuela gari,
yoan nitzen alorrengana
nahi nuela gari,
alorrak esan ziran
nahi zuela ongarri,
yoan nitzen behiarengana
nahi nuela ongarri,
behiak esan ziran
nahi zuela belar,
yoan nitzen soroarengana
nahi nuela belar,
soroak esan ziran
nahi zuela itai,
yoan nitzen erroangana
nahi nuela itai,
erreroak esan ziran
nahi zuela arraultza...
urdai, –gaizki esan dut–,
yoan nitzen zerriarengana
nahi nuela urdai,
zerriak esan ziran
nahi zuela izkur,

yoan nitzen arbolarengana
nahi nuela izkur,
arbolak esan ziran
nahi zuela haize,
yoan nitzen itsasoarengana
nahi nuela haize,
itsasoak neri haize,
nik arbolari haize,
arbolak neri izkur,
nik txerriari izkur,
txerriak neri urdai,
nik erreroari urdai,
erreroak neri itai,
nik soroari itai,
soroak neri belar,
nik behiari belar,
behiak neri ongarrri,
nik alorrari ongarrri,
alorrak neri gari,
nik olloari gari,
olloak neri arraultza,
nik apezari arraultza,
apezak neri giltza,
nik amari giltza,
amak neri papa,
nik hartu ta jan,
ondotxo irabazia dao ta.

– Hori, guztiaz akordatziak ere badu, ezta? bere lana.

– Pues, horixe da, nik eztut rekuerdorik deus ere hola, bakarra hori, amak nola kontatzen tzigun, ta, gero konturatzen kostan tzaziun, ez, ze esan nahi zun horrek, baño gero ya konturatzen zara, esanaz esanaz, ta, gauza asko dire, lan asko in ber dela ogie yateko, hori esan nahiko zun horrek, nik pentsatu itten dut eh?, eztakit...

SALDIAS

Juana Mariezkurrena, Saldiasko Maixenekoa

Ni naiz Juana Mariezkurrena, Saldiasko Maixenekoa, inguruan badago Muxarrenea, hau Yoantenea, hor Argiñenea, hor Loperenea, Matxinea, Sunbillenea, Martikonea, horiek... Baserriak badaude, baina hemen auzoa ez, hau dena bat da, bai...

Bai, bai, nekazari bezala, klaro, badira fabrikan lana egiten duten batzuk, baina gutxi, oso gutxi, gehiena nekazaritza bizi da, hemengo jendea.

– Bizimodua asko aldatu al da hemen, herri honetan?

– Bai, oh! Askok aldatu da, etxe aldaketan ez eh!, baina bestela, bestela dena kanbiatu da, horixe, jende gutxiago, klaro, gu berak bederatzi senide baginen, ta orain nork ditu bederatzi, inork ere ez, bat, bi, gehiena dituenak hiru, eta kanbiatu egiten da, klaro, familiko izakera, pues, ezta, ezta lehengoa, ezta pentsatu ere. Bai, gogorragoak ziren baina ez genuen besterik ikasi ta, orduan pues, hura zen guretzat hoberena, beti alai bizitzen ginen, beti lana ere piska bat egiten genuen eta, erdian (?) eta...

Gizonek lantegietan ¹ egiten zuten lana, gure aita ikatz egiten aritzen zen, eta anaiak ere berarekin, gazte aski hasi ziren joaten, eta haiek ekartzen zuten puska horrekin, eta etxean beste zerbaite egiten genuen eta hala...

Kanpoan gehiago, bueno etxean ere bai, ura ere etxera kanpotik ekarri behar genuen, eta arropak ere, labaderora joan behar izaten genuen garbitzera, ez zen orain bezala, eta beti etxean, etxean aritzen ginen bai, eta alorrean ere hantxe, makoa, altzurrean, eta denetan.

Ez, ez, ez zen biazirik, biaz gutxi egiten zen eta autobusa hartzeko bajatu behar genuen hara behera, eta horixe.

– Eta gainera orduan ez zen noski Orokieta alderako bideberririk ².

– Hau berandu egin da eh!, bai, zenbat urte dira ba, oso gutxi, ez, hemen ez genuen batere kamiorik ³, ez genuen, orai dela hogeita... ez dakit zenbat urte izanen diren, hogeita bost-seiren bat hor izanen dira, ez?, (---) lehenbizikoa egin zigutela, eta bitartean beti behera joaten ginen, hantxe bordetara

(1) Lantegi: basoko arbol-lotea, egurra edo ikatza egiteko.

(2) Bideberria: errepidea.

(3) Kamioa: errepidea.

(---), handik hartzen genuen autobusa, batzuetan ailegatzen, eta, eskapa igual, buelta gora.

– Eta orduan jendea, ez dakit, hobeto ez dut esango baina zoriontsuago edo ta bizi al zen orain baino?

– Bai, ni bai eh!, ni bai, askoz hobeki orain baino, bueno orain ere ez naiteke kejavu, dudanagatik «bien», eta ongi aski, baina orduan beste, «es que» beste era bat zen, beste era bat, ez zen telebistarik, ez zen baina nerretzat orain sobran dago eh!, ez zait batere gustatzen, zerbait, baina oso gutxi.

– Eta nola ziren orduko ume koxkorren arteko eta jolasak, jokuak eta, holakorik e...

– Bai, baina beti izaten genuen, pues, altxaketan ⁴, edo jostatzeko soka, edo saltoka edo, horiek izaten ziren, geronen jostatzeko gauzak.

– Eta altxaketan aritzeko ez al zen, zera, hala kanturik edota...

– Bai, baziren, baziren bai, ezkutatzen zirenek ez zuten gauza handirik esaten, bale!, bakarra edo bai!, edo ez!, baina altxatzeko bat esaten zen, han betetzen zegoenak esaten zuen: «kuku-kuku landa, erbi baratzen da, kuku bazatez, kuk», eta orduan kontestatu behar zuten altxatuta ⁵ zeudenek. Hori bat, bestea...

Bai, guk hura esaten genuen, hemen, bilatzen zuenak esaten zuen: «safo!», eta besteek esaten zuten, libratu zirela eta, eta orduan beste haiek gordeta zeudenak atera egiten ziren, ez?, libratu zituela...

– Halako jolasik ez da ikusten oraingo neska-mutikoskorren artean...

– Orain ere ibiltzen dira eh!, baina ez ditut aditzen, gauza horiek nik ez ditut aditzen batere... memoria ez dut oso txarra, baina urte asko dira eta atzendu ere egin zaizkit ia... zerbait ere badakit, klaro, zerbait ere esateko, bi, bi behinik behin bai.

– Haur kantak lirakeke edo gehiago ba, amak txikiei egindakoak...

– Bai, hori ere erakusteko dago, horrela egindakoak, nik pentsatzen dut eh?, kantak bezala ez dira eh?... bai, gure gazte denboran ez zen izaten gauza oraindik eta (---) zerbaitetan denbora pasatu behar, eta orduan pues, gauza horiek erakusten pasatzen zuten denbora, eta guk ikasi... hori.

Bai, eskola bazen, baina ez orain bezala, orain baino eskasagoa zen hura... bueno, hasiko gara esaten, edo zer?

Bueno, bat esanen dizut orduan, lehenbiziko hau, esaten zutena: –kuku-rruku!, –zer didazu?, –buruan min, –nork egin?, –Xaxarkok ⁶, –Xaxarko non da?, –iturritxoan, –zertan?, –txotxak biltzen, –txotxak zertako?, –sua egiteko, –sua zertako?, –amona xaharra berotzeko, –amona xaharra zertako?, –oiloa

(4) Gorde-gordeka, haurren jokoa.

(5) Gordeta, ezkutatutik.

(6) Herri ipuietako pertsonaia, azeri pertsonifikatua. Maiz «Otsoko» izaten du bidaide.

bazkatzeko, –oiloa zertako?, –arraultza erruteko, –arraultza zertako?, –apezari emateko, –apeza zertako?, –meza emateko, –meza zertako?, –gu eta mundu guzia salbatzeko.

Orduan izanen zen, pues, Xaxarko, nik pentsatzen dut eh? gizon xaharren bati esaten izanen ziotela. Nik hemen ez diot inori ere aditu eh!, baina Labaien eta, bada. Bai, hor don Tomasek baditu hartuak, jadanik hiru modutara dago, bai, piska bat diferentexego horrela, nik esan dudana baino... klaro beti denetan bada eh!, nik hura don Tomasi aditu diot bere koinatak Labaienen ere esaten duela, esaten dituela gauzak asko horrela, batzuk erdaraz, denetan nahasturik, horrela...

Gu jende haiekin eta horrela ez ginen aritzen askorik horiek esaten, etxean gehiena, etxean izaten genuen, ikasi eta gero geure artean, ni asko aldiz aritzen naiz, horrela, errepasatzen, bestela...

– Eta beste bat ere, ba omen duzu gogoan.

– Bueno, pues hura ere gero, luzea da eh!, baina esanen dizut, ea ateratzen zaidan ongi, lehengo egunean esaten hasi nintzen hura ere:

«Ama!», ekar ekartzu papa,
–«haurra!», apezak du giltza,
–joan nintzen apezarengana,
nahi nuela giltza,
apezak esan zidan
nahi zuela arraultza,
joan nintzen oiloarengana,
nahi nuela arraultza,
oilok esan zidan
nahi zuela gari,
joan nintzen alorrarengana
nahi nuela gari,
alorrak esan zidan
nahi zuela ongarri,
joan nintzen behiarengana
nahi nuela ongarri,
behiak esan zidan
nahi zuela belar,
joan nintzen soroarengana
nahi nuela belar,
soroak esan zidan
nahi zuela itai,
joan nintzen erroarengana
nahi nuela itai,
erroak esan zidan
nahi zuela urdai
joan nintzen zerriarengana
nahi nuela urdai,
zerriak esan zidan
nahi zuela ezkur,
joan nintzen arbolarengana
nahi nuela ezkur,

arbolak esan zidan
nahi zuela haize,
joan nintzen itsasoarengana
nahi nuela haize,
itsasoak neri haize,
nik arbolari haize,
arbolak neri ezkur,
nik txerriari ezkur,
txerriak neri urdai,
nik erreroari urdai,
erreroak neri itai,
nik soroari itai,
soroak neri belar,
nik behiari belar,
behiak neri ongarri,
nik alorrari ongarri,
alorrak neri gari,
nik oiloari gari,
oiloak neri arraultza,
nik apezari arraultza,
apezak neri giltza,
nik amari giltza,
amak neri papa,
nik hartu eta jan,
ondotxo irabazia dago eta.

– Hori, guztiaz akordatzeak ere badu, ezta?, bere lana.

– Pues, horixe da, nik ez dut rekuerdorik deus ere horrela, bakarra hori, amak nola kontatzen zigun, eta gero konturatzen kosta egin zitzaigun, ez, zer esan nahi zuen horrek, baina gero jada konturatzen zara, esanaz esanaz, eta, gauza asko dira, lan asko egin behar dela ogia jateko, hori esan nahiko zuen horrek, nik pentsatu egiten dut, eh?, ez dakit....